

MARTUTENNEKO

OLENTZEROA

2013ko abenduaren 24a



1. Din Dan Don

DIN DAN DON, DIN DAN DON!
EGUBERRI ON!
ZORION, ZORION!
GABONAK, DIN-DAN, DON!
DIN DAN DON, DIN DAN DON!
EGUBERRION!
ZORION, ZORION, GABONAK GABON!

IZAR BAT HASI DA DIZDIRA ZERUAN
BERRI ONAK ZABALTZEN ARI ZAIGU MUNDUAN.
JAIO DA, JAIO DA, JAUNAREN SEMEA,
ASKATXO BATEAN DAGO, LASTOEN GAINEAN.

DIN DAN DON...

AINGERUAK KANTA, ARTZAIN ONAK DANTZAN,
JAINKOAREN JAIOTZAN PAKEA ETA HAINZA!
ASTOAK, AJA-JA! IDIAK, MUU-MU!
ESTALPE ZAHARREAN KANTUAN ARI ZAIZKIGU.

DIN DAN DON...

ANTXON ETA PERU, ARTZAIN BURUZURI,
IZARRARI JARRAIKA BIAK DATOZ ARINKA.
MENDITIK BARRENA, HAURTXOARENGANA,
ARTZAIN BAKOITZAK DARAMA ARKUMETXO BANA.

DIN DAN DON...



2. Trakatan, Trakatan

TRAKATAN, TRAKATAN
HIRU ERREGE,
TRAKATAN, TRAKATAN,
BELENERA,
BELENEN JAIO DEN
JESUS HAURTXOA
TRAKATAN, TRAKATAN
AGURTZERA.

MELTXORREK, TRAKATAN,
ZALDIA BELTZA,
GASPARREK TRAKATAN,
ZALDI GORRI,
TRAKATAN, TRAKATAN,
BALTASAR ZAHARRAK
ZALDIA, TRAKATAN,
ZURI-ZURI.

TRAKATAN, TRAKATAN ...



3. Alaken

ALAKEN, ALAKEN,
ALA PIKULA TUN PAIRE,
ERRESPUNDE LA PIKULA TUNPA
JESUS MARIA JAINKOA ZEN. **(BIS)**

ADISKIDEOK!
IKUSI DUZUE ZELAI HORIETAN ARTZAIA,
ARTZAI TXIKI,
ARTZAI HANDI,
ARTZAI MUTUR LEUNA.

ALAKEN, ALAKEN...



4. Haur Eder Baten Bila

HAUR EDER BATEN BILA
GABILTZA ZORATZEN
TA IZARRAK ESAN DIGU
GALDETZEKO HEMEN.

JANGOIKOAREN HERRI
MAITE JERUSALEN
ESAN ZAIGUZU LAISTER
JESUS NON JAIO DEN. **(BIS)**

IZAR BAT AGERI DA
DIZDIRAZ ZERUAN,
KINUKA ARI ZAIGU
GABON GAUERDIAN.

JANGOIKOAREN HERRI
MAITE JERUSALEN
ESAN ZAIGUZU LAISTER
JESUS NON JAIO DEN. **(BIS)**



5. Kanpaiak Jaietan

KANPAIAK JAIETAN, DINDAN DINDAN TINTINTAN.
IZARRAK ARGITAN GABON GAUETAN.
MARA MARA ELURRA, TXURI TXURI GAILURRAK.
JAINKOA JAIO DA, POZTU DA LURRA.
KANTA BAT ENTZUN DA GAUEZ MENDIALDEAN.
ZORION! ZORION! GUZTIOI GABON!
BELENGO ESTALPEAN SEHASKATXO BATEAN
LO DAGO HAURTXOA GURE JAINKOA.



6. Hator Hator

HATOR, HATOR MUTIL ETXERA
GAZTAINA XIMELAK JATERA,
GABON GAUA OSPATUTZEKO
AITAREN ETA AMAREN ONDOAN.
IKUSIKO DUK AITA BARREZKA
AMAREN POZ TA ATSEGINEZ.

ERAGIOK, MUTIL, AURREKO DANBOLIN HORRI.
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI TXAPLA, PUM!

GABON GAUA POZIK IGARO DAIGUN.

ERAGIOK, MUTIL...



7. Txoria txori

HEGOAK EBAKI BANIZKIO
NERIA IZANGO ZEN
ETZUEN ALDE EGINGO, **(BIS)**

BAINAN HORRELA ETZEN GEHIAGO TXORIA IZANGO
ETA NIK TXORIA NUEN MAITE

TRA LA LARALALA

BAINAN HORRELA ...



8. Olentzero

OLENTZERO JOAN ZAIGU
MENDIRA LANERA
INTENTZIOAREKIN
IKATZ EGITERA.
ADITU DUENIAN
JESUS JAIO DELA
LASTERKA ETORRI DA
BERRI ONA EMATERA.

HORRA! HORRA!
GURE OLENTZERO!
PIPA HORTZETAN DUELA
ESERITA DAGO
KAPOIAK ERE BADITU
ARRAULTZATXUAKIN
BIHAR MERIENDATZEKO
BOTILA ARDOAKIN
BOTILA ARDOAKIN.

OLENTZERO BURU HANDIA
ENTENDIMENTUZ JANTZIA
BART ARRATSIAN EDAN OMEN DU
HAMAR ARRUKO SAGIA
AI URDE TRIPA HANDIA
TRALARALALA TRALARALALA
AI URDE TRIPA HANDIA
TRALARALALA TRALARALALA

- OLENTZERO BEGI GORRI,
NUN HARRAPATUKO DEK ARRRAIN HORI?
- GOIKO ITURRIKO HARKAITZETAN
BART ARRATSEKO HAMAIKETAN.

- OLENTZERO BEGI GORRI,
NUN HARRAPATUKO DEK SAGAR HORI?
- MENDIOLAKO SAGASTIAN
ZAKURRA LOTAN ZEGOENEAN.

- OLENTZERO BEGI GORRI,
NUN HARRAPATUKO DEK ARRAULTZ HORI?
- ELIONEKO OILO TXURIAK
BART POLTSIKOAN JARRI ZIDAN.

- OLENTZERO IKAZKINA
GARBITU ZAK MUTUR ZIKINA.
- BAI, BAI, BAI, BAI, BAI, ARRATSEAN
ONGI AFALTZEN DUDANEAN.



9.Kanta Alleluia

KANTA KANTARI DAUDE ZERUAN
KANTA KANTARI AINGERUAK. **(BIS)**

KANTA ALLELUIA, BAI ALLELUIA,
BETI ALLELUIA, KANTA ALLELUIA! **(BIS)**

EPEL EPEL SUKALDE GIROAN
AITAREN ETA AMAREN ONDOAN. **(BIS)**

KANTA ALLELUIA, BAI ALLELUIA,
BETI ALLELUIA, KANTA ALLELUIA! **(BIS)**

GAUR JAIO ZAIGU JESUS HAURT XO.
GORATU DEZAGUN JAINKOA. **(BIS)**

KANTA ALLELUIA, BAI ALLELUIA,
BETI ALLELUIA, KANTA ALLELUIA! **(BIS)**



10.Horra Mari Domingi

HORRA MARI DOMINGI
BEGIRA HORRI
GUREKIN NAHI DUELA
BELENA ETORRI.

GUREKIN NAHI BADUZU
BELENA ETORRI
ATERA BEHARKO DUZU
GONA ZAHAR HORI.

HATOZ, HATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI !
HATOZ, HATOZ ZURE BILA NENBILEN NI!
HATOZ GOAZEN TA ADORA DEZAGUN
BELENEN JAIO DEN HAURT XO EDER HORI
HAURT XO EDER HORI.



11.Mendi Aldetik Datoz

MENDI ALDETIK DATOZ,
ARTZAINAK, ARTZAINAK.
BILDOTSA BAT HARTURIK
BIZKAR GAINEAN. **(BIS)**

GABON GAUEAN KANTA,
KANTA ALLELUIA,
KANTA ALLELUIA,
ALLELUIA,
GABON GAUEAN KANTA,
KANTA ALLELUIA, GAUEAN.

HAUR TXIKI BAT JAIO DA,
BELENEN, BELENEN
GUZTION JAINKOA DA,
POZTU GAITEZEN. **(BIS)**

GABON GAUEAN...



12.Oilarrak Kanta Kantari

OILARRA KANTA KANTARI, KUKURRUKU KUKURRUKU
KALE JIRAN DABILTZA, KUKURRUKU KUKURRUKU.

EGUERRI JAIA OSPATZEN, KUKURRUKU KUKURRUKU
JESUS JAIO DA BELENEN, KUKURRUKU KUKURRUKU

ATZETIK TXITOAK ERE, PIO PIO PIOKA!
ATZEKOEI EZIN SEGI, PIO PIO PIOKA!

EGUERRI JAIA OSPATZEN, KUKURRUKU KUKURRUKU
JESUS JAIO DA BELENEN, KUKURRUKU KUKURRUKU



13.Kazka zuri

KAZKA ZURI, SUDUR GORRI, MENDI GAINA ZURI-ZURI,
ZORIONAK, ZORIONAK. BERTAN DITUGU GABONAK.

GABONAK, GABONAK, HAU ZORIONA!
BERTSOTAN ARI ZAIGULA AITONA.
AJAJA, PARREZKA DAGO AMONA.

KAZKA ZURI, ...

TXIMINI ZULOTIK NORBAIT SARTU DA.
MUTUR BELTZ, BEGI GORRI, AIBA LIO!
OLENTZERO DELA, HALAXE DIO.

KAZKA ZURI, ...



14. Haurtxo Maite

HAURTXO MAITE,
NOLA ZAUDE?
SEASKAN NEGARREZ.
ATOZ, BAI, NIRE BIHOTZERA.
ATOZ, BAI, LO LO EGITERA.
ABESTI MAITALEZ.
ABESTI MAITALEZ.

EGUBERRI,
EGUN ARGI,
ZERUAN KANTARI.
AINTZA ZERU GOIAN AITARI,
PAKE LURREAN GIZONARI,
ESKERRAK AMARI,
ESKERRAK AMARI.



15. Lo Dago

LO DAGO GURE HAURTXOA
SEHASKA GOXO BEROAN
OLENTZEROK EKARRIKO
DIONAREN ESPEROAN. **(BIS)**

TA BITARTEAN
GABON GABEAN
OLENTZERO DATOR
GURDI GAINEAN. **(BIS)**

IKAZKINAREKIN AMETS
EGITEN DU GURE HAURTXOAK
JOSTAILU BERRIAK ETA
KARAMELO GOXOAK. **(BIS)**

TA BITARTEAN
GABON GABEAN
OLENTZERO DATOR
GURDI GAINEAN. **(BIS)**



16. Agur

AGUR ESKERRIKASKO,
AGUR ETXEKOAK
HURRENGO URTE ARTE
HEMENDIK BAGOAZ. **(BIS)**



17. Birjina Maite

BIRJINA MAITE LOTAN DAGO
ZURE SEME LAZTANA
SEHASKATXO BAT IPINI IOZU
GURE BIHOTZEN KUTUNA
ONGI BAI ONGI IGARO DITZAN
GABAK ETA EGUNAK
POLIKI POLIKI ERAGI IOZU
EGIN DEZAN LO ONA.



18. Gaueko Izar

GAUEKO IZAR ARGITSUENA
PIZTUTZEAKIN BATERA
HAURTXO EDER BAT ETORRI ZAIGU
GAUR ARRATSEAN ETXERA.
ORDU EZKEROZ ETXEKO DENOK
POZTU TA ZORATZEN GERA.
HAURRA DELAKO ZERUTIK HONUNTZ
DATORREN JAINKO BERBERA.
ALAI TA POZIK KANTA DEZAGUN
HAURTXO HONEN ETORRERA
GURE ILUNA ALAITUTZEKO
JAIO DAN ARGI EDERRA.

GAURTIK AURRERA ATZERRI HONTAN
ZORIONEKUAK GERA
HAURRA DALAKO ZERUTIK HONUNTZ
DATORREN JAINKO BERBERA.



19.Xalbadorren heriotzean

ADISKIDE BAT BAZEN
OROTAN BIHOTZ-BERA,
POESIAREN HEGOEK
SENTIMENTUZKO BERTSOEK
ANTZALDATZEN ZUTENA.

PLAZETAKO KANTARI
BAKARDADEZ JOSIA,
HILTZEN LIHOA IRUTEN
BERE BARNEAN IRAUTEN
OINAZEZ IKASIA...
IKASIA.

NUN HAGO, ZER LARRETAN
UREPELEKO ARTZAINA,
MENDI HEGALETAN GORA
OROITZAPEN DEN GERORA
IHESETAN JOAN HINTZANA.

HESIA URRATURIK
LIBRATU HUEN KANTA,
LOTURA GUZTIETATIK
GORPUTZAREN MUGETATIK
ASKE SENDITU NAHIRIK.

AZKEN HATSA HUELA
BERTSORIK SAKONENA,
INOIZ ESAN EZIN DIREN
ESTALITAKO EGIEN
OIHURIK BORTITZENA...
BORTITZENA.

NUN HAGO, ZER LARRETAN
UREPELEKO ARTZAINA,
MENDI HEGALETAN GORA
OROITZAPEN DEN GERORA
IHESETAN JOAN HINTZANA.